



# KOMUNIKABIDE-KOMUNITARIOAK ETA KOMUNITATEAREN GARAPENA

## BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Eztabaida partehartzailearen bidez, taldekideek komunitatearen garapenaren eta komunikabide herrikoiaren arteko loturez ikasiko dute.

## AIM OF THE ACTIVITY

Partehartzaileak kontzientziaztea komunikabideek komunitatearen garapenerako izan dezaketen erabilgarritasunaz.

## EXPECTED OUTCOMES

Partehartzaileak gai izango dira jakintza eta ulermena badaukatela erakusteko honakoez: • Irrati-komunitarioen printzipioen eta komunitatearen garapenaren arteko loturaz • Irrati komunikabidearen zabalpenaren erabileraz komunitatearen lanabes gisara • Garapenaz • Norbanakoak eta komunitateak irrati-komunitarioen bidez garatu eta trebatzearen garrantziaz

## INFORMATIONS FOR TRAINERS

### EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Ezagutza zabala komunikabideen, eta bereziki komunitarioen, inguruan (historia, estatus legala, sareak), aholkularitza ahalmena, ariketa honen funtsa eztabaida irekia baita batez ere.

### INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Ikasgela eta aulkiak.

### LENGTH

30 minutu

### MATERIALS

Proiektore digitala, grabagailua, Power Point, paperezko arbela, errotulagailuak (dena aukerakoa)

### DESCRIPTION

## **HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE**

Idea zaparrada. Eskatu partehartzaileei ideia zaparrada botatzeko 'komunitate garapena' esanda ulertzen dutenaren inguruan. Esanak arbelean jaso. Informazioa hezitzailearentzat: komunitate garapena jendearen engaiamendua da, euren komunitateak behar dituen aldaketak identifikatzeko orduan. Garapen honek ahalbidetzen dio jendeari norbere hazkuntza, eta baita komunitatearena ere. Tradizionalki, komunitatearen garapenerako elkarteak irabazi asmorik gabekoak izan dira, eta sarritan ongintzazko erakunde gisara izan dira erregistratuak. Horien gisara, irrazi-komunitarioa irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta komunitatearen mesedetarako erabiliko ditu balizko irabaziak. Sarritan, honek bazterturiko gutxiengoekin lan egitea dakar, hala nola gutxiengo etnikoekin, ezgaitasunak dauzkaten pertsonekin edota gazteekin. Komunitatearen garapenerako erakundeek mekanismoak izaten dituzte partaideak erabakitze prozesuetan eta erakundearen kudeaketan inplika daitezten. Honi "trebakuntza partehartzailea" ere deitzen zaio. Partaideei talde txikitik jartzeko esan, eztabaida dezaten eta horren ondorioak konpara ditzaten Garapen Komunitarioarako eskuorrietan agertzen diren ideiekin edota hezitzaileak luza diezazkienekin.

## **RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO**

10 (ikusmen urritasuna edo ikasteko zailtasunak badauzkate, 4na hezitzaileko).

## **RISK AND POSSIBLE ADAPTATION**

### **VARIATIONS**

Eztabaida grabatu, editatu eta RSS bidez zabaldu daiteke, ikusmen urritasuna duten kideentzat erabilgarria baita. Eskuorriak emailez bidal dakizkieke taldekideei.

### **TIPS FOR TRAINERS**

Eztabaida dinamikoa mantendu. Galderak luzatu partaideei, adi eta partehartzaile egon daitezten. Eman Garapen Komunitarioari buruzko eskuorriak

### **PARTICIPANTS**

Apartekorik ez.

### **ANALYSIS AND EVALUATION**

Gai al dira partaideak komunitatearen garapenerako hiru gako aipatzeko? Topa al ditzakete loturak komunitatearen garapenaren eta irratia printzipioen eta ekimenen artean?

### **SCHEDULING**

Atal hau ez da derrigorrezkoa, baina programazioan sartuz gero sarreraren parte izan beharko litzateke, eta betiere ikerketa eta elkarriketa moduluak baino lehen.